innobasque

berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

2011 Txostena
1° hiruhilekoa



# kideen txostena

# OPENTRIC
## Gure berrikuntza eredua

### OPEN - **IREKIA**

- Partaidetza
- Pertsonak eta erakundeak
- Kapital intelektuala eta Ezagutza
- Aniztasun glokala

### CENTRIC - **ZENTRATUA**

- Ekintzan
- Pertsonengan
- Eraldakuntza-barrutietan
- Helburuen erakusketa



# Aurkibidea

1. hiruhilekoan. Guillermo Ulacia 5

2 minututan: txostenaren laburpena 6 - 7

I. Elkargo Publiko-Pribatua Areagotzea 8 - 11
> Berrikuntza irekia politika gakoetan

II. Ingurunearekin lerrokatuz 12 - 2 0 / 25
> Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika
> Gizarte Efiosasuntsua Dinamika
> Ekintzailetza Areagotzeko Dinamika
> Laugarren Sektorea Dinamika
> Openideiak
> Inguruneak: lankidetzak garatuz

III. Euskadi eraginkor batekiko konpromisoa 26 - 30
> I+G+i Sistemaren Nazioartekotzea (INSIDI)
> Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea Dinamizatzea
> Diplomazia berritzailea
> Innobasque: gehiago gutxiagorekin
> Innocampus

IV. Berrikuntza gizarteratzea 31 - 33
> First Lego League Euskadi 2010
> Innobasqueren Asteartea
> Eragina medioetan

ERANSKINAK 34 - 38

"Merkatu berriak irekitzea gakoa da enpresa-ehuna birsortzeko"
**Guillermo Ulacia**ri egindako elkarrizketa

"Gizarte berritzailea izan nahi badugu harrobiarekin lan egin beharra dugu"
**José María Villate**ri egindako elkarrizketa

"Gipuzkoa Berritzen-ek berrikuntza ekintzara bideratzen du",
**Gaizka Zulaika**ri egindako elkarrizketa

Negozio sarkariak piramidearen oinarrian?, **Paul Ortega**k

Ezagutza partekatuz: 39 - 42

Hiruhileroko argitalpenak
Jasotako argitalpenak
Aurkezpenak

# Global innovation day

emaitzak

resultados

berrikuntza
innovación

oportunidades

aukerak

**Berrikuntza: nola bihurtu abaguneak emaitza**

**Innovación: Cómo transformar las oportunidades en resultados**

## BILBAO: Euskalduna Jauregia - ekainak 16 - 17.30

Agertoki berri batera abiatzeko unea heldu da, bide berriak aztertzeko. Eta Euskadi bidean dago. Geure historiak nola egiten erakusten du. Egokiera edo aukerak aprobetxatzen jakin behar da irabazteko, eta BERRIKUNTZA da horretarako bidea. Global Innovation Day, topaketa esklusiboa, Europa, Asia eta AEBetatik etorritako adituengandik ikasteko zein diren abaguneak emaitza bihurtzeko giltzarriak.
Ez ezazu huts egin! Eman izena hemen: global@innobasque.com / 902 221 241 (jarleku kopuru mugatua)

## BILBAO: Palacio Euskalduna - 16 de junio – 17.30 h.

Es tiempo de navegar hacia un nuevo escenario, de explorar nuevas vías. Y Euskadi está en el camino. Nuestra propia historia muestra cómo hacerlo. Hay que saber aprovechar las oportunidades para ganar, y la INNOVACIÓN es la vía. Global Innovation Day, un encuentro exclusivo para conocer de la mano de expertos procedentes de Europa, Asia y EEUU, las claves para convertir oportunidades en resultados.
¡No te lo pierdas! Inscríbete en: global@innobasque.com / 902 221 241 (aforo limitado)

## MUNDUAREN BIRA BERRIKUNTZAREN BIDEZ

## LA VUELTA AL MUNDO A TRAVÉS DE LA INNOVACIÓN



**Maya Imberg**
THE ECONOMIST INTELLIGENCE UNIT
Zer dator krisiaren ondoren?
Y después de la crisis ¿Qué?



**Richard Tuffs**
EUROPEAN REGIONS RESEARCH AND INNOVATION NETWORK (ERRIN)
Zertan ari dira Europako eskualdeetan?/¿Qué están haciendo en las regiones europeas?



**Ross C. DeVol**
MILKEN INSTITUTE
Ekonomi hazkundea eta enplegu-sormena
Crecimiento económico y creación de empleo



**Penny Low**
SOCIAL INNOVATION PARK, SINGAPORE
Aldea berrikuntza egiten duten pertsonengan dago / La diferencia está en las personas que innovan.



**Pedro Subijana**
Euskal sukaldarien Business Case: Business Case de los cocineros vascos:
Irabazteko lankidetzan jardun
Cooperar para ganar

powered by innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación



# 1. hiruhilekoan

**Guillermo Ulacia**
Innobasqueko Lehendakaria

Egungo abagune ekonomikoak, ezegonkortasunaren arriskutik bere burua askatzen ez duen testuinguru batean, inoiz baino beharrezkoago egiten du lankidetza publiko-pribatuaren mekanismoak sakontzea haren eragina gutxitu nahi badugu.Urtearen lehen hiruhilekoan finantza-merkatuak, klase politikoa eta komunikabideak lehen krisi finantzario globalaren ondorioetan zentraturik egon dira. Eta oraindik ere entzuten da haren oihartzuna. Mundu-ekonomia hazten hasi dela albiste ona hor dugu. Eskaera-kartera globalaren gehitze-joera atergabea da 2010etik, nahiz eta erritmo desorekatukoa izan. Eurogunerako hazkundeak 2011rako %1 eta %3 bitartekoak dira. Gorantz datozen herrialdeetan zifrak %5era iristen dira eta Txina geldiezin % 10ean kokatzen da. Hazkunde asimetrikoez hitz egiten da, nola herrialdeen artean, hala herrialde bereko lurralde edo sektoreen artean.

Finantza-merkatuen eta tokiko kontsumitzaileen konfiantza ahulaldian dagoen bitartean, enpresen berraktibatze ekonomikoa kanpo-merkatuetan zehar bideak urratzen ari da, gero eta lehiakorragoak baitira. Abaguneak aurkitzeak inoiz baino gehiago eskatzen du berrikuntza. Berrikuntza teknologikoa eta berrikuntza ez-teknologikoa. Hobetze disruptiboak produktuan, diseinuan, edo marketingean. Irten beharra dago saltzera zenbat eta zeinen ongi dakigun egiten, aurkezten zaizkigun abaguneak emaitza bihurtuz.

Testuinguru global honetan, berrikuntzatik lanena jarraitzen dugu. Zeren eta sinetsi egiten baitugu berrikuntzan egon daitezkeela eraldatze-prozesuaren gakoak, hazkundea bultzatu eta gure ekonomia, gure enplegua, eta hitz batean, gure gizartea berreskuratzea erraztuko duena. Gure industriaren ekarpen kritikoa begietatik galdu gabe, eta erabakigarritzat jotzen ditugun inguruneak eta eraldatze-dinamikak sortuz: 4º Sektorearen Garapena eta Nazioartekotzea, Ekintzailetza Areagotzea, Ekonomia Ekoberritzailea eta Gizarte Efiosasuntsua; horien aurreratzearen berri ematen du hiruhileko txosten honek.

Badirudi ziurgabetasuna eta baikortasun arretatsua izango direla aurrerantzean ere nagusi. Beharrezkoak dira egitura-eraberritzeak enplegua sortzeko, oraindik ez dira konpondu finantza-krisiaren gertaera batzuk, eta bistan dago ez dugula inolako konponbide miresgarririk krisiaren osteko buruhausgailua osatzeko. Baina helburua argi daukagu, eta bidea markatu degu, elkarrekiko lankidetzarako bideak urratzea beharrezko dimentsio lehiakorraren ekarpena egingo dutenak. Berritu dezagun berrikuntza merkatu errealean lehian aritzeko, izan ere merkatu globala da hori. Eta horretarako “Innobasque formula” oso sinplea da, lankidetza-kultura errotu batean bermatzea eta sakontzea, eta geure enpresa-dinamismoan, egoera oso zailak eta proiektu zailak kudeatzen asmatu baitu. Izan ere, komeni da gogoraraztea, Euskadik baditu profesional-, pertsona-ekipoak, enpresa askok aitortzen dituztenak herrialdearen barruan eta kanpoan. Eta, ez dezagun ahaztu, berrikuntza pertsonek egiten dutela. Hori da gure sendotasuna.

# 2011ko lehen hiruhilekoa **bi minututan**





- Innobasque b20 berrikuntzaren mundu zabaleko lideren gailurrean kokatzen da.
- EkoEuskadi 2020: Abiatu da Garapen Jasangarriaren Estrategia lantzeko partaidetza-prozesua. Euskal gizartearen 500 ordezkari baino gehiagok esku hartzen dute lehen topaketetan.
- ZTBParen lehen zirriborroa Batzorde Zuzendariari eskaini zaio.
- Innobasqueren Gizarte Berrikuntzako Estrategiaren Aurkezpena.
- Arrakasta izan du Piramidearen Oinarriko negozio sarkarien 1. prestakuntza-ikastaroko parte-hartzeak.
- Bizkaia:xede-rekin lankidetzan Langile Ikertzailearentzako Euskadiko Gida Praktikoa landu da FECYT-ek egindako espainiar mugikortasunaren gidaren osagarri berri-emaile gisara.
- Diplomazia berritzailea: nazioarteko 4 kontaktu berri (Nesta eta Stanfordeko Unibertsitatea gailentzen direlarik).
- Parte-hartze handia 2011 Era Nets Deialdian (150 pertsona)
- Hiruhileko honetan guztira mobilizatutako pertsonak 6.143 izan dira.
- Hazten ari gara presentziaz Sare Sozialetan.
  - 3.000 jarraitzaile baino gehiago Twitter-en (%100eko gehikuntza baino handiagoa)
  - Open ideiak: 3.790 pertsona erregistratu (%18,99ko hazkundea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta)
- 1,4M €-tan jotzen da Innobasqueren eta haren kideen eragin publikoaren balioa.



- Eraikuntza jasangarria areagotzeko proiektua abian jarri da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin lankidetzan.
- Kronet-kronikoen Sarea: paziente kronikoen komunitatearen beta bertsioaren jaurtikipena.
- Zahartze Wokako ondorioen argitalpena.
- 10 proiektu berri erregistratu ditugu PGEB potentzialenak (Presentzia Globaleko Enpresa Berritzaileak).
- Parte-hartze arrakastatsua adimen emozionaleko tailer monografikoetan.
- Adimen Emozionaleko Partzuergoa %20an hazi da. Dagoeneko 75 dira erakunde lankideak.



- Euskal parte-hartzea VII. Programa Esparruan %49 hazi da aurreko deialdia lortutako itzulerarekiko (VI Programa Esparrua) eta %8,7an gainditzen ditu Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuak.
- “Piramidearen Oinarria Euskadiren ikuspegitik. POko berrikuntza-ahalmenari buruzko diagnostikoa” argitaratu eta hedatzea.
- Eutokiarekin lankidetza-hitzarmena sinatzea, elkarrekin ekintzak burutzeko enpresa sozialen sorkide izaten laguntzen dutenak.
- 1. Prestakuntza-ikastaroaren arrakasta piramidearen oinarria eta negozio sarkariei buruz.

# I. Aliantza Publiko-Pribatua areagotzea

**Zer da Aliantza Publiko-Pribatua?**

Euskadiren Eraberrikuntzarako prozesurako ekarpen berezietako bat da, Innobasqueri nortasun indartsu eta bakarra ezartzen diona.

Plataforma publiko-pribatua gure herrialdearen eraberrikuntza dinamizatu eta bizkortzeko berezko gunea da. Ahalik eta gehien garatzea sare publiko-pribatuaren almena behar bat da gure gizarterako, zeren eta aukera ematen baitu eraldaketarekin zerikusia duten proiektu eta ekimen desberdinetan tarteko diren eragile guztiek partekatutako esku-hartzearen eta ikuspenaren eroale izateko. Gure osaerarengatik, Innobasque topagune egokia da sektore desberdinetako gizarte-eragileak, lan-barrutietan adituak diren pertsonak, eta proiektuak lideratzen dituzten erakundeak zuzenean edo zeharka inplikatzen dituzten ekimenen garapenerako.




## Innobasqueren Batzorde Zuzendaria

50 kide bertaratu ziren (presente eta ordezkaturik) Batzorde Zuzendaria UPV-EHUaren paraninfoan egin zen, eta Iñaki Goirizelaia, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen ongi etorria jaso zuen.

Bestalde, Innobasqueko Lehendaria den Guillermo Ulaciak "ZTBP 21015ren 6 osagai bereizgarri" agiri zirriborroaren laburpen bat aurkeztu zuen, eta ERTaren baliokidea den partzuergo bat eta enpresak sortzeko hurrengo urratsak agertu zituen. Innobasqueren Zuzendari Nagusiak, José Maria Villatek elkarteak 2010ean izandako jardueraren balantzea azaldu zuen. Bertan izan zen Nicolás Borges, "Espainiarentzako hazkunde-agenda bat" txostenaren egilekidea, eta bertan adierazten dira nondik jo behar den 3 milioi enplegu sortzeko. [2011ko otsailaren 22]

***Innobasqueren papera "gidari" (driver) izatearena da honako ildo hauetatik:***

> Harreman-kapitala balioan ezartzea, hura gehituz, eta sare publiko-pribatua ahalik eta gehien garatzea, konektibitatea, ezagutzaren lotura eta emaitzetara bideratutako hura balioan ezartzea erraztuz.

> Opencentric berrikuntza-eredu ireki eta zentratu baten bitartez.



# Innobasque Washingtonen egindako b20 berrikuntzaren mundu zabaleko liderren gailurrean kokatzen da.

Berrikuntzako Euskal Agentziak, 33 herrialdek berrikuntza-gaian 37 liderez osaturiko b20 deitutako eratze ofizialean esku hartu zuen. Innobasque eta Bilbao Metropoli-30 gonbidatu dituzte lider-elkargo horretan esku hartzera maila erregional eta udalerrikoan berrikuntza "eredugarri"en ordezkari bezala, zeinetan esku hartu baitzuten EEBBetako gobernuko berrikuntza-elkargoko liderrak, haien artean zeudelarik Alec Ross Berrikuntzarako Estatu Batuetako Kanpo Arazoetako Ministerioaren Aholkularia (OSTP), Aneesh Chopra zuzendari teknikoa, Zientzia eta Teknologia Politikako Etxe Zuriaren Bulegokoa, Tom Kalil Politikako Zuzendariaren Albokoa, honako herrialde hauetako berrikuntza-liderrekiko elkarrizketan: Abu Dhabi, Australia, Botsuana, Brasil, Kanada, Txile, Txina, Finlandia, Alemania, Japonia, Norvegia, Ruanda, Singapur, Espainia, Suedia, Turkia, eta Erresuma Batua.

Gailur-bilera honek aurkezpenak izan zituen Estatu Batuetako eta Txinako berrikuntza-estrategia nazionalei buruz, bai eta berrikuntza espezifikoko ekimenak ere gobernu-antolaeretan eta aantolaera ez-gobernuzkoetan, esaterako, Nazioarteko Garapenerako Agentzia (USAID) eta X-saria Fundazioa.

Gailur-bileraren ondoren, b20ak Davosko World Economic Forumen esku hartu zuen, gobernuetako eta GKEetako aditu seniorrei zuzenduriko"National Innovation: An Oxymoron?" tailerrarekin [Washington,13-14 urtarrila]

*Innobasque eta Bilbao Metropoli-30 Innobasque eta Bilbao Metropoli-30 gonbidatuak izan dira lider-elkargo horretan txertatzera berrikuntza-eredu "jarraigarrien" ordezkari bezala."*

## b20ren helburuak

B20aren helburuen artean nabarmentzen da **"globaltasunaren erronkak"** identifikatzea, eta horretarako eragile berritzaileen sare berri bat artikulatzen da, zeinak " eskala desberdinetan pentsatzen eta jokatzen baitute".

Talde hau erronka berriei aurre egitera zuzenduriko estrategiak garatzeko gai den lankidetza-ingurune bat bezala kontzebitzenda eta, halaber, agertoki berritik gorantz datozen aukera berriak baliatzeko ere bai, hala nola, hurrengo belaunaldiaren beharrei egokitutako zerbitzu publikoen birdiseinatze edo hezkuntzaren "berrasmatzea".





### LASTER DATOZENAK

- Batzorde Zuzendaria (2011ko ekainaren 16).
- Innobasqueren Batzarra. Global Innovation Day (2011ko ekainaren 16).
- OCDE/ELGE: Erregio Berrikuntzako Azterlanaren Aurkezpena: Euskal Herria (2011ko apirilaren 7)
- ZTBParen aurkezpena (Ekaina)
- Lehen Berritzaileen Topaketa, 2011koa (ekainaren 13)
- JD taldearen lanak hasiak.

# Berrikuntza irekia politika gakoetan

## BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZA LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Innobasque izan da aurreproiektuaren jendaurreko informazioaren izapidearen dinamizazioaz eta koordinazioaz arduratu dena, eta jasotako ekarpenak lantzeaz. Helburu horrekin 3 lan-jardunaldi garatu dira Innobasquen, E.A.E.ko hezkuntza-barrutian 150 pertsonaren partaidetza izan duena. Tailer presentzialetan lortutako ekarpenez gainera, beste iradokizun batzuk txertatu dira iturri espezializatuetatik aterata. Ekarpen guztiak txosten batean sartu dira Bizitzan Zeharreko Ikaskuntza Legearen azken idazkuntzako esparruan aztertu eta balioesteko E.A.E.n Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntzaren aldetik . [Zamudio, martxoaren 10, 17, 24n]



## INNOBASQUEREN GIZARTE BERRIKUNTZAKO ESTRATEGIAREN AURKEZPENA

200 pertsona izan ziren Bilboko Burtsaren egoitzan "Gizarte Berrikuntzako Estrategia: aukera-leiho bat Euskadirentzat"en aurkezpen koralean. Euskal Ekonomialarien Elkargoan izan zen ekitaldian, Innobasquek agerian jarri zituen Gizarte Berrikuntzak dituen balioa sortzeko aukerak, Euskadik erantzun beharreko erronka handietan bere fokua ezarriz: enplegua, hezkuntza eta zahartzea. B. [otsailak 22]

## ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA 2015

2010ean izan ziren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren (ZTBP) lantze-prozesuaren lehen 2 faseak eta horien ondoren etorri ziren, hurrenez hurren, planaren lerro estrategikoen agiria ZTBEKak onartua 2010eko ekainean, eta arkitektura estrategikoko lehen zirriborroa Bultzatze Foroan urte bereko abenduan aurkeztua.

2011ko lehen hiruhileko honetan prozesuaren hirugarren fasea garatu da eta ZTBP 2015 agiriaren lehen zirriborroa Batzorde Zuzendariari eskuratuz amaitu da. Zirriborro hori kontrastatu eta berrikusi egingo dute Adituen Batzordeak, Bultzatze Foroari azkenekoz aurkeztu baino lehen datozen hilabeteetan.

*ZTBP 2015 **agiriaren lehen zirriborroa** eman zaio Batzorde Zuzendariari, Adituen Batzordeak kontrastatuko duena.*

**EMAITZAK**

- Subsidiariotasun eta berrikuntza azterlanaren aurkezpena
- ZTBP 2015 agiriaren lehen zirriborroa Batzorde Zuzendariari ematea
- Eko Euskadi 2020an partaidetza-arrakasta: euskal gizarteko 500 ordezkari baino gehiago.
- Ikaskuntza-legea: 3 saio (180 pertsona) eta Itxiera-txostena lantzea



## EKOEUSKADI 2020

Abiarazi da partaidetza-prozesua "EkoEuskadi 2020" Garapen Jasangarrirako Estrategia lantzeko. Ekimen hau eredu ekonomiko berri bat ernaraztera bideraturik jaio da, oparotasun ekonomiko, berdintasun eta gizarte-kohesioari eta ingurumen-babesari buruzko gogoeta ireki bat bezala.

IHOBEk teknikoki koordinatua, eta Innobasquek kudeatua, eragile ekonomiko eta sozialei, gazteei, eta hiritarrei, oro har, zuzendurik dago.

Lehen topaketetan, Euskal gizarteko 500 ordezkari bildu zituztelarik (enpresa-elkarteak, administrazio publikoa, unibertsitatea, ikerkuntza-zentroak, enpresak, teknologia-institutuak, sindikatuak, eta abar) partaidetza-tailerrak burutu ziren. Gogoeta horren emaitzak Euskadiko politika publikoetan jasangarritasunaren osagai gakoak integratzeko balioko du.

Izandako tokaketez gainera, hiritarrek ekarpenak egiten jarraitu ahal izango dute hemen:

www.irekia.net, ww.ecoeuskadi2020.net, eta Openideiak, eta Facebook eta Twitter-eko soslaietan. [urtarrileko 25-26]



ecoeuskadi
Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia
2020

***EcoEuskadi 2020 Euskadiko Garapen Jasangarriaren Estrategia bezala itxuratzen da 2020ko ostertzarekin.***




## ERREGIOEN BATZORDEA: SUBSIDIARIOTASUN ETA ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALAREN AZTERLANAREN AURKEZPENA

Martxoaren 21ean, egin zen Subsidiariotasunari buruzko V. Gailur-bilera Erregioen Batzordeak antolatua eta, nola Eusko Legebiltzarrak hala Eusko Jaurlaritzak babestua.

Jardunaldi hartan subsidiariotasun printzipioarekin zerikusia zuten zenbait gairi ekin zitzaien, Lisboako Itunaren egin eta erregioko eta tokiko erakundeek ezarri eta gero, bai eta alerta goiztiarreko sistemaren egungo egoera ere erregio-parlamentu desberdinetan.

Eusko Jaurlaritzak Patxi Lopez Lehendakariaren eskutik, Gizarte Berrikuntzan lider izan den lan-taldearen ondorioak aurkeztu ditu, eta bertan Innobasqueren lankidetza kontuan izan du, izan ere Enpresen Erantzukizun Sozialean subsidiariotasun printzipioan zentratu da. [martxoaren 21]

### Lan-lerro irekiak

- Leiharkortasun Plana 2010-2013.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015.
- Bizitzan Zeharreko Ikaskuntza Lege baterantz Euskadin.
- Gizarte Berrikuntzako Ikerkuntza Estrategia
- Gaitasun Handiko Langileak, Euskadin egoiliar ez direnak, 2007-2009 aldirako kontratatuak
- Gazteriaren Partaidetzako Plan Pilotua
- Erregio Berrikuntzari buruzko OCDE/ELGEren azterlana. Euskal Herria.
- Lehendakariaren Aholku Kontseilua
- Enplegu Estrategia
- XXI. Mendeko Udalerriak
- Eko-Euskadi 2020

### LASTER DATOZENAK

- Erregio-berrikuntzari buruzko OCDE/ELGEren azterlanaren aurkezpena. [apirilaren 7]
- Ekoeuskadi 2020: [Maiatzaren 5etik 29ra]
  - Partaidetza-dinamikak abiaraztea lanbide-heziketako eta unibertsitateetako ikasleekin.
  - Eragile sozio-ekonomikoekin Jardunaldiak.
  - BAI+5ekin lan-saioak.
- XXI. Mendeko Udalerriak
- Balioak
- Bizitzan Zeharreko Ikaskuntza Lege baterantz Euskadin (Hobetze-proposamena hobetzea. Kongresua: Urriaren 19-20-21).

# II. Ingurunearekin lerrokatuz -LAE

## 2010-2012 Estrategia Ekintzako Lerroak

**Zer dira eraberrikuntza-dinamikak?**

Gure erronkak beren geroa garapen eta hazkunde jasangarri batera bideratzen dituzten gizarte aurreratu guztienak dira, industriaren ekarpena bermatu eta babestearekiko bere nahiekiko koherenteak izaki, lehiakortasuna eta mundu zabalean presentzia gehituz. Helburu generiko hori ezartzen deneko bidea berrikuntzatik igarotzen da, nola Euskadin hala munduaren gainerakoan, zeren berrikuntzan egon baitaitezke prozesu horren gakoak. Bide horretatik, Eraldakuntza ostertzean dugula, Euskal sare berritzailea hedatzeko eta sektore gakoei ezartzeko lanean ari gara

Aktibatze-helburu horrekin 5 makro-joera globalekin, bost domeinurekin lerrokatzen gara, zeinetan Innobasque hasieratik lanean ari baita.

- Gizarte-garapena
- Garapen Ekonomikoa
- Jasangarritasuna
- Osasuna eta Bizi-kalitatea
- Agertoki Berriak

5 eremu horiek gurutzatzeearen egungo emaitzak erabakigarritzat dauzkagun lau eraldatze-dinamika handi definitzea ahalbidetu digu eta hain zuzen haien gainean ari gara geure ahaleginak biltzen 2010/2011n: Ekonomia Ekoberritzailea, Ekintzaileta aregoatzea, Laugarren Sektorearen (gizarte-ekonomia) Garapena eta Nazioartekotzea eta Gizarte Efiosasuntsua.





# DINAMIKA Ekonomia EKO BERRITZAILEA

## ERAIKITZE JASANGARRIA

Eraikitze Jasangarri baterako berrikuntza-dinamika bat abiarazi eta garatzea, zeinean esku hartzen baitute Eusko Jaurlaritzak eta eragile ekonomiko-sozialek, zeinek bere baitan baitauzkate Euskadiren eraikitze jasangarriarekin loturiko administrazio eta gizarte publikoen, enpresa-antolaeren eta eragile sozial eta ekonomikoen ordezkaritza, gaitasun eta soluzioen garapena sutatzearen (materialak, zerbitzuak eta prozesuak) helburu nagusiarekin eraikuntzan tarteko diren sektoreetan, zeinek ahalbidetuko baitute Europa 2020 Estrategian ezarritako ingurumen-helburuak lortzeko ekarpena eginez eta haiek Euskadin ezartzen Klima Aldaketaren aurkako Euskal Legearen bitartez, bai eta sektore horietan Euskal enpresen lehiakortasuna gehitzen ere.

## EAEN EKOBERRIKUNTZA SUSTATZEKO EKINTZAK

- Building Performance Institute Europe lan-taldean esku hartzea araudi berria garatu eta ezartzeko eraikuntzan energia-efizientziari buruz.
- Amsterdameko Clean Tech Forumen esku-hartzea
- Bilboren hautagaitza Clean Tech Forum Nazioarteko Kongresuan aurkeztea (2012).
- EHU eta BC3ren atariko erronda txosten bat prestatzeko EAEren ekarpenaz gorantz datozen Merkatu Berdeetan.
- Hasi da Deustuko Unibertsitatearekiko lankidetza honetarako:
  - Campusaren "greenifikaziorako" proiektuaren diseinua, energia- eta ingurumen-efizientziari hobetzeko ekarpena egingo diona, ikasleak sentibatuko dituena eta start-upak garatzea eta ikerkuntza-proiektuak sustatuko dituena ekoberrikuntzaren inguruan.
  - Ingurumen Ingeniaritzako Masterraren programa hobetzeko proposamenak identifikatzeko.
  - Gertaerak sustatzeko: ZEROWASTE 2011 eta "Hiri Hondakinen Balioespena"
  - Ekintzailetza-lehiaketa sustatzeko akordioa teknologia berdeko, Clean Tech Open enpresatan

## EKOTEKNOLOGIAK ETA HIRI SOLUZIO JASANGARRIAK

Eredua definitzea Berrikuntza Plan bat landu eta abian jartzeko ekoteknologien eta hiri-soluzio jasangarrien inguruan:

- Kudeaketa-eredu bat enpresa-proiektu erakusketakoak identifikatzea erraztuko dutenak, enpresak sustatzen lagunduko dutenak.
- Finantzatze-mekanismoak eta hiritarren partaidetza.

## MINIGENERAZIO BANATUA

Ekimenaren sustatze-ekintzak burutzen ari dira MITYC, MICINN eta Triodos Bank Banku etiko eta jasangarrian, guztira 13 eragile publiko eta pribaturekin egin dira bilkurak.

Epe laburrean aurreikusten da lankidetza-hitzarmena sinatzea Minigenerazio banatuaren instalazioekin zerikusia duen enpresa-jarduerarako.

## Dinamikaren asmoak

- Lidergo Teknologiko Lehiakorreko marka bat sortzea.
- Oreka bat bilatzea hazkunde ekonomikoaren-enpleguaren eta ingurumen-eraginaren artean. (Garapen jasangarria).
- Marjinak eta errentagarritasuna hobetzea inbertituriko kapitalaren gainean.

## RERISK TXOSTENA

Dagoeneko prest dago energia-pobretasunaren arriskuan dauden erregioei buruzko Azken Txostena. ReRisk proiektua, Innobasquek eta Nordregio lideratua Atenasko Unibertsitate Tekniko Nazionalarekin batera proiektuaren kide bezala. Europako Batasuneko erregioetako lehiakortasun ekonomiko eta gizarte-kohesiorako energia-pobretasunaren eraginari buruzko ondorioak aurkezten ditu.

### ReRisk-ek dio:




- Energiaren erabileran zentratu behar da, ez hura ekoizten bakarrik.
- Egitura ekonomikoak eta garraiokoak, bai eta gizarte-egoerak eta klima-baldintzek Europako erregio batzuk eragiten dute energia-urritasunaren aurrean beste herrialde batzuk baino zaurgarriagoak izatea eragiten dute.
- Txostenak erakusten du erregai fosilen prezioaren igoerak aukera berriak irekitzen dituela energia-baliabide berriztagarriak garatzeko eta diru-sarreren eta enpleguen iturri berriak sortzeko.



DINÁMICA

# GIZARTE EFIOSASUNTSUA ETA BIZI-KALITATEA

### Zer da?

Zehar-izaerako ekintzaren proposamena Osasuna eta bizi-kalitateak eskaintzen dituzten beharren eta aukeren inguruan, bai eta gizarte aurreratu batean sistema jasangarri bat izateko beharra ere. Bideratzen ari garen epe luzerako helburuak hauek dira:

- Gehiago eta hobeto bizi.
- Balio ekonomikoa sortu ingurunean.
- Gizarte-osasuneko sistemaren jasangarritasunari lagundu.

## INNOBASQUE-REN ZEREGINA

- PIngurunеak sustatu, zeinetan antolaera publikoek eta pribatuek, pertsonek eta elkargoek lagunduko duten ekimen berritzaileak lankidetzan definitzen, garatzen eta ezartzen.
- Osasunaren balioaren konstelazioa itxuratzen duten eragile desberdinen artean lan egin mugen artean eta haietan zehar.
- Ikuspegi desberdinak dituzten eragileak hurbilaraztea sustatu, ideia berriak eta ikuspuntu berriak atzemateko eta abian jartzea bizkortzeko.

## KRONIKOTASUNA

Paziente Kronikoen Euskal Elkargoa beta bertsioa abian jarri da, pazienteen arteko harreman eta lankidetzarako plataforma. Plataforma horrek fokapen berritzaile eta desberdintzailearen ekarpena egiten du beste gaixo kroniko batzuen elkargoekiko, bizitza eta gaixotasuna elkarrekin erlazionatzeko duten lotura emozionalean oinarritua. Helburua du pazienteak eta haien ingurune hurbilekoena ahalduntzea.

Martxoaren erdi aldera hasi ziren probak paziente-talde batekin, eta aurreikusten da Elkargoa zabalik dagoela ekaina baino lehen.

Laster aurkeztuko da Plataforma Kronikoen Kongresu Nazionalean eta Bartzelonako e-patients Nazioarteko Kongresuan.

## OSASUN TEKNOLOGIEN SEKTORE GARAPENA

Eskualde-garapenaren estrategia zehaztu ondoren, Eskualde Garapeneko agentzia batean baino gehiagotan ari dira lanean (Lea-Artibai eta Goierri...) Sektorearen (4C Guneak) aukerei buruz eskumenen eta sentiberatze-prozesuari buruz.

Gainera, bukatzear dago Euskal Herriko eragileen "mapa" bai eta gaitasun gakoak identifikatzeko metodologiaren definizioa ere.

Gainera arrakasta duen kasu bat lantzen hasi dira, Euskal sukaldarien arteko lankidetza. Buiness case baten adibidea da - arrakasta profesionalak emaitza bezala eman dituen lankidetza, sektore bezala arrakasta, eta herrialdearen nazioarteko proiekzioa sektoreari lotua. Txostenak honako hauen laguntza izango du: Pedro Subijana, Juan Maria Arzak, Andoni Luis Aduriz, Martin Berasategi, Hilario Arbelaitz eta Eneko Atxa eta Basque Culinary Center.







### *Zergatik Sektore Garapena?*

*Euskadik badituelako HWB (Health & WellBeing) sektorera transferi daitezkeen gaitasunak eta eskumenak, eta esperientzia eta beste sektore batzuetan egiten jakitea aplikagarria izandaiteke sektore honetan, helburuetako bat tradiziozko enpresen desberdintze bat gure helburuetako bat izan daitekeelarik.*



## ELIKATZEA

Estrategiaren definiziorako metodologia bat garatzen lanean dihardugu. Elikatze osasungarria sustatzeko jarduera onak identifikatu dira. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekiko lankidetzan bideak eta irismena ezarri dira, lehen sektoreko eta eraldakuntzako berrikuntzarako.

### *Gure helburuen artean:*

- Zehar-izaerako Elikatze bat hedatu bere inplikazio sozioekonomiko guztiak kontsideratzen dituen gizarte eta herrialde osasuntsu batentzat (obesitatea, kronikotasuna, osasungintza-gastua, kanpotiko janari-mendekotasuna, ingurunearen kontserbazioak, balioak, ...), eta zeinetan bateratzen baitira elikatzearen balio-katearen inplikatu guztien interesak.
- Osasuna lehiakortasunaren osagai gako bihurtu
- Jarduera berritzaileak identifikatu eta hedatu eta, ahal izanez gero, nekazaritza-likagaien balio-kateko edozein puntutako lankidetzarekin.
- Herrialdeko "sukaldaritza"-aktiboetan sakondu.
- Estrategia definitzeko metodologia garatu. Elikatze osasuntsua sustatzeko jarduera onak identifikatu dira.
- Bideak eta lankidetzaren irismena ezarri dira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin lehen sektorean eta eraberrikuntzakoan berrikuntzarako.



## ZAHARTZE AKTIBOA [Gizarte Berrikuntza]

**Gure helburua:**

- Zahartzeaz eta adineko pertsonez gizartean dagoen pertzepzioa aldatzea, ikuspuntu baikorrago eta aukerazko batera
- Zahartze Aktiboaren ekimen europarrak egokitzea Euskal Herriaren berezitasun eta beharretara
- Dimentsio eraldatzailea duten lan-lerro eta proiektuak abian jartzea nola maila ekonomikoan hala sozialean.

200 pertsona parte hartu zuten hiru "World café"ren ondorioak argitaratu dira.

**Ekarpenak 7 ardatz nagusiren inguruan biraka ibili dira:**

- Zahartzearen kultura bat
- Hezkuntza
- Osasuna
- Politika publikoak
- Sentiberatzea eta komunikazioa
- Produktu eta zerbitzu berriak
- Belaunaldien arteko bizikidetzarako gune berriak




**Ondorio bezala**, honako barruti hauetan ekintzak proposatzeko erabakia hartu da:

- Zahartzearen eta zahartzaroaren balioa
- Bizikidetza-guneak
- Sentiberatzea eta komunikazioa

***Europar Batzordeak proposatu du 2012 hartua izatea Zahartze Aktiboaren Urte bezala Europan.***

### EMAITZAK

- Paziente kronikoen Elkargoa beta bertsioaren jaurtipena: Kronet-Kronikoen Sarea
- Elikatze osasuntsua sustatzeko jarduera onak identifikatzea
- Woka zahartze aktiboaren ondorioen argitalpena
- Sektore-garapena: EAEeko diagnostikoa eginik:
  - Eragileen mapa amaiturik eta balioztatzearen zain
  - Eskumenen azterlana garapenean (eskualdekoak, klusterra eta orokorra)
  - Lan-prozesua hasita Lea-Artibai eta Goierrirekin eskumenei eta sektoreko aukerei buruzko sentiberatze-prozesuari buruz (4C Guneak)
  - Business Case lankidetza-esperientziei buruz (Euskal sukaldarien arrakastaren kasua)

### LASTER DATOZENAK

- "Efi-Osasuna eta bizi-kalitatea" estrategiaren aurkezpena (maiatzaren 24)
- Paziente kronikoen Elkargoaren aurkezpena:
  - Bilbao WebSummit (maiatzaren 18)
  - Donostiako Kronikoen Nazio Kongresua (maiatza 18, 19)
  - E-patients Nazioareko Kongresua Bartzelonan (ekaina 20,21)
- Eragile Soziosanitarioen Mapa
- Lankidetza-arrakasta baten kasuaren argitalpena (ekaina 24)
- Basque Culinary Center-ekin lankidetza-hitzarmen bat

# EKINTZAILETZA INDARTZEAREN DINAMIKA

**Zer dira EIPGak?**

- Enpresak dira (ez proiektuak).
- Izaera berritzailekoak: haien salmentak gutxienez % 25ean azken hiru urteotan merkatuan sartutako produktuen mendean daude.
- Nazioartekotuak: beren salmenten %25 edo gehiago esportatu egiten dute.
- Hazkunde lasterrekoak: enplegatuen kopurua % 20 baino gehiago gehitzen da hiru urtetan.

## EIPG-AK BIZKORTZE ETA/EDO ABERASTE PROZESUA

Innobasquek bizkortze eta aberaste prozesu bat sortu du dagoeneko eraturik dauden eta hazkunde-ahalmen handiko enpresentzat. Prozesu horretan hautatzen dira etorkizuneko EIPEGak eta haietako bakoitza ad hoc Kontraste Talde batekin kidetzen da Innobasque Sarekoa dituen artean. Kontraste-talde horren eginkizuna da sektore espezifikoari buruzko ezagutzen ekarpena egin eta haiek integratzekoa. Nazioarteko esperientzia, enpresa-mentoreak, finantza-adituak, teknologia-adituak.

Une horretatik aurrera Kontraste Talde bakoitzak bere lan-dinamika berekia garatzen du.



***Zergatik sortzen da ahalmen handiko ekintzailetza bultzatuko duen estrategi bati ekiteko beharra?***

> Haren eragin sozio-ekonomiko handiagoarengatik.

> Ekintzailetza-ekosistemako eragileen aldetik garatzeke dagoen nitxo bat delako.



## AURREKO PROIEKTUEN EGOERA

Azterketa-prozesuan 5 EIPG potentzial:

- IP Systems eta Sustainable Reference: Amaitu da lankidetza
- Unicorp: Elkartea eratzea prozesuan
- Amboto: Abian jarrita mentoring taldea eta finantzatze-taldea
- Hib Akordioa egina eraikuntza-sektoreko enpresa handi batekin.
- Virtual ware Produktu berrientzako kide lankideak bilatzen
- Kera Coat: Produktu berrientzako kide lankideak bilatzen
- Beste 3 kontraste-talde egiteko esperoan

*Gainera hiruhileko honetan...*

**Lankidetza-akordioak:** prozesuan dago akordio bat IK4 eta Tecnaliarekin EIPGak identifikatze-prozesuan lankide izateko (dagoeneko indarrean dauden akordioen eranskina).

## NOLA APLIKATZEN ZAIO HAU PROIEKTU JAKIN BATI?

**Hib kasua**

Hib-ek bere jarduera identitate handiko laborategi jasangarrien eraikinak diseinatu eta eraikitzean zentratzen du. 2008an eratu zen eta Adelmo Antelo da haren sustatzailea.

**Lehen Fasea:** Lagunduko dion ingurune bat sortu. Innobasquek lagundu egin du Maite Fundazioaren sortze-prozesuan, zeinek sustatzen baitu nola erakunde publikoek hala pribatuek laborategi funtzionalak eta seguruak kudeatzea jasangarritasun-irizpidearekin.

**Bigarren Fasea:** Talde Sustatzailea sortu haren lehen bilkura eginez (6 antolaeratako ordezkariek esku hartu zuten, eta ondorengo aldebiko bilkurak intereseko beste eragile batzuekin). Gaur egun sinatuta dago eraikuntza sektoreko enpresa handi batekin proiektu bat burutzeko, eta Virtualware-rekin baterako proiektu batena hasteko zorian dago.

## Zer ekarpen egin dio Innobasquek Hibi sustatzailearen ikuspuntutik?



"Enpresa-garapenaren gure lehen fasea sendotu ondoren eta gure enpresaren hazkunde ahaltasun handia berretsirik, Innobasquek kontrastatu egin du gure proiektu estrategikoa eta beharrezko sinergiak katalizatu ditu gure sendotze eta geroko hazkundearen prozesua indartu eta bizkortzeko...

... Krisi batetik bizkor irtetearen gakoa erakarpen-ahalmen handiko enpresa-proiektu berriak detektatu, hautatu eta serioski bermatzean datza."

***Adelmo Antelo,***
*HIB-en Zuzendari Nagusia*

## Martxan dauden EIPG proiektuen eraginaren baliozpena

*Hurrengo laukiak Innobasquen garatzen ari garen 4 EIPGen (presentzia globaleko enpresa berritzaileak) eragin-ahalmena erakusten du (zuzenekoa eta zeharkakoa):*

| Eragin zenbatetsia (milioika eurotan) | Enpresa bultzatzailea | Enpresa esku-hartzaileak | Ekimenak Innobasqueko Toberan |
|---|---|---|---|
| >1 | HIB | Virtualware | Gas-kanpaia: produktu-lerro berria unibertsitate-laborategietarako (patentea aurreikusita). |
| >10 | HIB | Eraikuntza-enpresa | Modulu-eraikuntza jasangarria azpiegitura zientifikoetarako. |
| | ANBOTO | ANBOTO | Gizakia eta makina arteko komunikazioa hizkuntza naturalaren bitartez. |
| >100 | KERA-COAT | INGE-INNOVA | Korrosioaren aurkako eskakizun handiko atalak garatzeko teknologia. |
| | KERA-COAT | Hodi-sektorea (Tubacex, Tubos Reunidos, Petronor), energia eta automozioa | Gama altuko produktuen familia-garapena. |

## BALIO HANDIENA: Enpresen arteko lankidetza

*Kontraste-taldeek, 150 parte-hartzaile aktibo baino gehiagorekin, detektatu dute enpresen arteko lankidetza esploratu gabeko eta eragin handiko negozio-aukera berriak bultzatzen ari dela.*



### EMAITZAK

Hiruhileko honetan ...
- 10 proiektu berri erregistratu ditugu.
- 2 EAEko ekintzailetza-ekosistemarantz bideratu dira.
- 3 kontraste-taldeak eratzen ari dira.
- 5 sustatzaileek berek egin beharreko azterketen zain daude beren prozesuari ekiteko.

### LASTER DATOZENAK

- Doocuments, Barnekudeaketa , ASOMO... lehen kontraste-bilkura.
- Anbotoren Mentoring- eta Kudeaketa- taldeko hirugarren bilkura.
- Aldebiko bilkurak intereseko eragileekin Virtualware eta Kera-Coat-entzat.
- Anbotok antolatutako Bilbao Web Summit gertaerarekiko lankidetza.

# LAUGARREN SEKTOREA DINAMIKA

**Zer da?**

> Dinamika honen helburua da enpresa-jarduera garatzea helburu sozialekin, gaur egun sail horretan ari diren antolaeren gaitasunak areagotuko duen lan globaleko esparru bat eskainiz, lan globaleko ekimen berriak abian jarriz, eta haien nazioartekotzea sustatuz.

## PIRAMIDEAREN OINARRIA EUSKADIREN IKUSPEGITIK TXOSTENAREN AURKEZPENA

Urtarrilaren 18an, Innobasqueren Asteartearen esparruan aurkeztu zen "Piramidearen Oinarria Euskadiren ikuspegitik. Piramidearen Oinarrian dagoen berrikuntza-ahalmenari buruzko diagnostikoa", Fernando Casado eta Pablo Sanchez egileen eskutik, Piramidearen Oinarria Laborategiko Nazioarte Merkataritzako Eskola Nagusia (ESCI), Pompeu Fabra Unibertsitatea, "Base of the Pyramid Learning Global Network"eko kidea baita. Aurkezpenean 120 pertsona baino gehiago izan ziren, Koopera eta Kaiku bi euskal enpresen esperientziak aurkeztu ziren, eta Frogtek kasua.

## PIRAMIDEAREN OINARRIAREN ETA NEGOZIO SARKARIEI BURUZKO PRESTAKUNTZAREN ARRAKASTA

"Balioa nazioartekotzearen estrategiak enpresentzat piramidearen oinarriarekin berrituz".

Piramidearen Oinarriari eta negozio sarkariei buruzko (PO) prestakuntza-prozesu honetan 70 interesaturen artean hautaturiko 30 profesionalek esku hartu dute. [martxoaren 7-8].

## MONDRAGON PRESTAKUNTZA IKASTAROA (MCC)

MCCrentzat egindako prestakuntza espezifikoa. "Berrikuntza sarkaria Piramidearen Oinarriarekin: Nazioartekotzeko aukera berriak" jardunaldi prestatzailean 15 partaidek esku hartu zuten: Korporazioaren Nazioartekotzea; Korporazioaren Plangintza; Orona; Fagor Electrodomésticos; FagorEderlan; Mondragon Health; Orkli; LKS Consultoría; LKS Ingeniaritza eta MIK-TrendTrotters. [martxoa 9]

## SORKIDETZA PROZESUAREN SORKIDETZA

3 enpresa proiekturekin ZAINTZALAN, DOKUDEA Y BAOBAB.

Sorkidetza prozesua hasia dugu eragileekin ekintzaileta sozialari bide berriak errazteko.



## INNOVALAN EKIMENA

Proposamena aurkeztu zaio E. E.ko Enplegua, Gizarte Gaiak eta Inklusioa ren ZNari lankidetzako proiektu pilotu bat lantzeko agintari publikoen, merkataritza-enpresen eta sozialen artean gizarte-inklusioaren eremuan eta gaixotasun mentala duten pertsonak integratzea lan-esparruan.

### EMAITZAK

- Piramidearen Oinarria eta Negozio sarkariak gaiari buruzko PRESTAKUNTZAren arrakasta: "Balioa Nazioartekotzeko estrategiak enpresentzat POarekin berrituz"
200 pertsonak esku hartu zuten ekitaldian hauek hitz egin zuten, Iñaki Ruiz Manzano, Ekonomialarien Euskal Elkargoko Agintaritza Batzordeko Lehendakariordeak Jose Mª Muñoa, Gizarte Berrikuntzako Kontseiluaren lehendakariak Luis María Ullibarri, Innobasqueko Gizarte Berrikuntzako Zuzendari nagusiak eta Guillermo Ulacia, Innobasqueko Lehendakariak eta, b-talde desberdineni zenean Perico Ibarra (Gobernantzako b-Taldea), Nelida Zaitegi (Hezkuntzako b-Taldea), Tomás Arrieta (Enpleguko b-Taldea), Javier González (Zahartzearen b-Taldea), Iñaki Azua (Balioen b-Taldea), Josetxu González (Ekintzaletza Sozialeko b-Taldea), Lorea Soldevilla (EESko b-Taldea) eta Marcelle Mardon (PO-Nazioarteotzea b-Taldea). [otsaila, 22. Bilbo]





## "Berrikuntzaren eragina ebaluatuz"

Jardunaldi honetan, 100 bertaratu baino gehiagorekin Euskadiko berrikuntza gidatzeko eta haien eragin erreala euskal ekonomian gehitzeko baliagarriak diren ebaluazio-ereduak eta adierazleen aurrerapen bat ezagutarazi zen. Hori zela-eta "Berrikuntza –adierazleak eta benchmarkin. Euskal Herrirako gogoeta eta proposamena" liburua aurkeztu zen. Orkestra-Lehiakortasunaren Euskal Institutuak eta Deustuko Business Schoolek landua Innobasquerekin lankidetzan Brian Mac Aulay, NESTAren Berrikuntza Indizearen zuzendariak egilekidea duen 2010eko Berrikuntza Urtekariaren emaitzak jakinarazi zituen. Azterlanak berrikuntza britainiarraren gakoak eta Erresuma Batuko ekonomiari egindako bere ekarpena identifikatzen ditu. Mac Auleyk segurtatu du bere txostenak agerian jartzen duela hazkunde ekonomikoan zer garrantzi duen aktibo ukiezinetan egindako inbertsioak. Bestalde, Edorta Larrauri, Euskal Jaurlaritzako Teknologia Zuzendariak aipatu zuen zientzia, teknologia eta berrikuntzako egungo politikek duten eragina, zeinetan gomendatu zuen ekinean jarraitu behar dela euskal ehun sozio-ekonomikoari doituagoak diren lanabesekin.

Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren lankidetza izan zuen, eta hauek hartu zuten hitza: Jose Maria Villate, Innobasqueko Zuzendari Nagusiak, Jose Luis Curbelo, Orkestra- Lehiakortasunaren Euskal Institutuko Zuzendari Nagusiak, Josu Sagastagoitia, Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialeko Dekanoak, Mikel Navarro, Orkestra-Lehiakortasuneko Euskal Institutuko Ikertzaileak, Brian Mac Auley, Index Innovationeko Zuzendariak (NESTA), Edorta Larrauri, Eusko Jaurlaritzako Teknologia Zuzendariak eta Guillermo Ulacia, Innobasqueko Lehendakariak [22, martxoa]

## ERAGINA MEDIOETAN

*Publizitate-balioa 2011ko lehen hiruhilekoan 1,4 M €koa izan da.*

**EMAITZAK**

- . 11 gertaera/aurkezpenetan partaidetza kanpoko foroetan, 2.710 pertsonarekin.
- Medioetako eraginak: 523 1,4 M €ko balio zenbatetsi batekin (publizitate-baliokidetzaren arabera)
- 3.000 jarraitzaile baino gehiago twitter-en
- Open Ideiak: 3.000 erabiltzaile aktiboen kopurua gainditu egin dugu

# Eranskinak

## "Merkatu berriak irekitzea funtsezkoa da enpresa-ehuna birsortzeko"

Berrikuntzako Euskal Agentzia lanean ari da aukera berriko merkatuak bilatzen garabideko herrialdeetan eta ikerkuntzan nazioarteko erreferente bat izateko. Duela urtebete baino zerbait gehiago, Gillermo Ulacia Innobasqueren lehendakaria da, eta krisia gorabehera, zutik dirau oraindik ere Euskadi berrikuntza-erreferente bihurtzeko helburuak. Helburu hori, Ulaciaren arabera lortuko da euskal zentroak gai izatean nazioarteko enpresak erakartzeko hemen beren proiektuak garatzera. Oraingoz, joeraz zuena da.

**Krisiak erasan al du berrikuntza?**
Ez da gelditu eta orain inoiz baino gehiago berrikuntza aurrera eramateko lanean ari gara zentzu zabalean, ez teknologikoa bakarrik baizik eta soziala ere bai. Protagonismoa pertsonek lortzen dute eta haien ardurapeko alor guztietan berrikuntza ezartzen ari dira. Izatez, berritzaileen euskal erkidegoak dagoeneko 3.000 pertsona ditu.

**Berriki aurkeztu da "Piramidearen oinarria Euskadiren ikuspegitik" azterlana. Zertan datza?**
Gizarte-berrikuntza dago aukera berriko merkatuak bilatzera zuzendua. Kontua da teknologia eta ingurumeneko ezagutza guztia lekuz aldatzea eta errenta baxuagoko pertsonen kolektibo batean ezartzea, izan ere ongizatearen munduan txertatzeko aukera emango baitie. Teknologikoki aurreratua den merkatuaz harago beste zer ekimen aplika ditzakegun eta enpresa gisara nola planteatuko ditugun. Geure kideei egin diegun proposamen handietako bat da gizarte-berrikuntzaren barruan eta azterlanak nahi du proiektu zehatzak irtetea, merkaturatuko direnak eta enpresen bitartez garatuko direnak.

**Proiektu, esan dezagun solidarioen, alde apustu egitea al da?**
Izendatzaile komuna da mozkina sortu beharra dagoela, zeren enpresez ari baikara, baina helburu bat lortuko dutenak garapen jasangarria sozialki eta ingurumenari dagokionez. Batzuek



- ELKARRIZKETA **Guillermo Ulacia** Presidente, Innobasquekoa / Expansión, 2011ko otsailaren 7koa

interpretatzen dute hori GKEek egiten dutela, baina enpresa batek, sektore pribatu batek bezala lagundu egiten du hezkuntzan, osasungintzan, enplegua sortzen du, ekintzaileak indartu egiten ditu eta administrazioak konbentzitu egiten ditu erregulazio egoki bat izan dadin. Mobilizazio horri guztiari deitzen diogu Laugarren Sektorea, erantzukizun sozial korporatiboaren etapa berria. Eta ez da teoria, dagoeneko badira horretan ari diren enpresak.

**Zer herrialde eta zer sektoretan?**

Egin dugun azterlanak herrialdea Asian, Afrikan eta Latinoamerikan identifikatzen ditu, nahiz eta azken horretan egon seguru asko Euskadirentzako aukera gehien. Sektoreak energia, osasuna eta ingurumena dira.

**Bateragarriak al dira proiektu horiek egungoa bezalako krisi-egoera batean, Euskal Herrian langabezia-tasa garrantzitsua dagoelarik?**

Lehenik, ez du eskatzen kapital-inbertsio handirik. Egiten ari garena merkatu-ikerketa batean inbertitzea da eta horretarako sormen-dosi handiak eta negozio-eredu berriak abian jartzea behar da. Bistan dago horrek ez duela konpontzen hemen dugun enplegu-gabezia arazoa, baina epe ertain edo luzera proposamenak zuzentzeko eta bezeroa haien beharrak zein diren jakiteko merkatuak izateko aukera bat da. Mundu zabalean hazkunde jasangarri baten aldeko apustua egin behar da merkatu berriak, negozio-eredu berriak irekiz, hori baita gakoa hemen garatu behar dugun enpresa- eta enplegu-ehunak birsortzeko.

**Euskal enpresen deslokalizazio bat bezala ulertua izateko arriskurik ba al dago?**

Ez, hori beste orientazio bat da. Gure bezeroak behar bezalakoak badira, nazioartekotzeak eskatzen digu munduko edozein lekutan ekoizteko gai izatea eta horregatik ireki beharko ditugu lantegi berriak merkatuek eskatzen diguten tokian. Baina Euskal Herriak izan dezakeen erakarmenaren oinarriarekin lan egin behar da aldi berean hemen instalatu nahi duten enpresak etor daitezen ezagutza sortzen inbertitu dugulako. Hori balioan jartzeko ordua da eta lan handia egiten ari gara enpresa horiek etor daitezen, eta horrek aukera emango digu esaten jarraitzeko gure gazte unibertsitarioek lantoki bat dutela nazioarteko bokazioarekin.

**Baina gazte horiek beste herrialde batzuen eskaria har dezakete, orain Alemaniarekin gertatzen den bezala?**

Balio-kate hori bultzatzen enpresa-ehun bat ez baldin badago, gure gazteek beste erregio batzuetatik eskaintzak jasoko dituzte. Baina ikuspuntu positibo batetik ikusi behar da, zeren garapen-ahalmen handiko pertsonak ditugula ikusten ari baikara eta jakin-mina sortzen ari dira: zer euskal unibertsitatetan prestakuntza hartu duten edo Euskadiko zein teknologia-zentrotan garatu diren. Gaur ia ez dago mugarik eta gure apustuak izan behar du nazioartean lehiakorrak diren bikaintasun-zentroak nola sortu, gure talentuak irtetea errazteko eta itzul daitezen eta alderantziz, beste batzuek ere izan dezatela interesa hona etortzeko. Horrek aukera emango digu gizarte hobea izateko Europak dioen bezala hazkunde jasangarri, adimentsu eta integratzaile batekin.

**Oraindik jarraitzen al duzue Euskadik 2030ean berrikuntzako europar erreferente izateko helburuarekin?**

Ikusi behar dena joera da eta azken urteetan aurrera goaz, I+G gastuan BPGaren gainean, %2ra hurbiltzen ar igara eta zortzi enpresa ditugu Europako mila garrantzitsuenen artean daudenak. Horian kontuan hartuta, Euskadik benetako baldintzak ditu gure plan guztiek helburu hori izan behar dutela definitzeko.

Argi izan behar dugu denean ez garela izango hoberenak, baina garai honetan esan behar da zertan. Enpresa handi batek esango duenean material berrietarako ikerketa-zentroa hoberena Euskadin dagoela eta hitzarmenak sinatzen baditu eta hori errutina bihurtzen bada, orduan esan ahal izango dugu nazioartean erreferentzia bat garela.

**Geroko zer sektoretan aurrera egin behar du Euskal Herriak?**

Ekoberrikuntzak, beste batzuek merkatu berdeak deitzen dituztenek % 6,7 inguruko hazkundea dute eta guk baditugu enpresak eta teknologia-zentroak prestaturik hazkunde-bide horretatik aurrera egiteko mundu zabalean. Niretzat lehentasun handienekoa da. Gero zientzia eta teknologiarekin erlazionaturiko sektoreak daude, funtsean bio eta nano, baina orientazio bikoitz batekin, ez bakarrik osasunaren barrutira, bai eta industriara ere. Ikerketa-lerro garestiak dira, emaitza berehalakoak ez dituztenak eta sektore produktiboei oso loturik joan behar dutenak. Sektoreen arteko muga gero eta lausoagoa da eta sektore arteko klusterrak eratzeko beharra gero eta begi-bistakoagoa da, zeren sektore berriak azaleratuko baitira zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzen ondorio bezala.



# "Gizarte berritzaile bat izan bahi badugu harrobiarekin lan egin behar dugu"

**José María Villate** – Innobasqueko Zuzendari Nagusia – DEIA, 2011ko martxoak 6

FLLek aukera ematen die euskal gazteei berrikuntzaren protagonista bihurtzeko. Eta horretarako laguntza ematen die Innobasquek torneo horren espainiar finalaren antolaerarekin. Jose Maria Villatek azaldu egiten du ikuspuntua zuzendari duen berrikuntzako Euskal Agentziari buruz.

**Zerk darama Innobasque First Lego League (FLL) antolaeran tarteko izatera?**
Proiektu berean ditugu zientzia, teknologia, kirola, sormena, nazioartekotzea, hezkuntza, talentua, balioak eta berrikuntza. Elementu horiek guztiak oinarrizko osagaiak dira gizarte berritzaile bat bultzatzeko gure helburuari ekinez baina gazteenengana zuzenduz. Gizarte berritzaile bat nahi badugu, harrobiarekin lan egin behar dugu.

**Torneoak hedatzen al du Euskadi gizarte berritzaile eta I+G+b-aren polo aurreratuaren irudia duela?**
Zalantzarik gabe. Alde batetik, partaideengana zeren Iñaki Goenaga – ZTFarekin, ekipoak IK4, Tecnalia eta Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerketa-zentroekin lotzen baititugu, zeinek ateak ireki eta zientzia eta teknologiaren munduan beren lanbide-karrera egiteko aukerak erakusten baitizkiete. Bai eta kanpo aldera ere.
Gure ekipoetako hiruk dagoeneko nazioarteko faseetan ar izian dira, eta nazioarteko epaimahai batena urrean defendatu dituzte gure errealitatearekin loturiko beren ikerketa-proiektuak. Adibidez, Atlanta iaz ekipo batek proposatu zuen bizikleta motordunak birkargatzeko sistema bat eguzki-panelen bitartez. Epaimahaiak ezagutu nahi izan zuen zer jarduera zeuden Euskadin eko-berrikuntzarekin erlazionatuak. Eta azkenik nabarmendu beharra dago espainiar finala Bilbon , bere eraldaketarengatik ezaguna den horretan egitea, Euskal Herria proiektatzea dela, eta Hezkuntza, Unibertsitatea, edo I+G+b-arekin lotzea.

**Innobasque iragartzen ari da gaitasun handiko enpleguaren eskaria, berrikuntzarekin zerikusia duena, hazi egingo dela etorkizunean. Nola laguntzen du horretarako torneoak?**
Euskadi 2010ean, Ikerbasquek zientziaz egindako txostenak dio ikertzaileen ratioa Euskadiko biztanleria aktiboari dagokionez ikerkuntzan eta berrikuntzan gizarte-liderrak direnen azpitik gaudela, 0,94an gaude 2008an, EB-15eko %1,15en aurrean, edo Finlandiaren % 2ren aurrean. Beraz ikertzaile eta teknologo gehiago txertatu beharrean ehun produktiboan gaude gure ekonomia bizkortu, eta enplegu berriak sortzeko.

**Agertoki horretan, beharrezkotzat al daukazu zientzia eta teknologiarako bokazioak ernaraztea eskolaumeen artean?**
FLLren berezitasuna da zer ikasiko duten artean erabaki ez duten eskolaumeei zuzendua dela, nahiz eta era dibertigarrian zientziara eta teknologiara hurbildu badira ere. Txikitan denoi izugarri gustatzen zaigu esperimentuak egitea, atergabe galdetzen dugu, irudikatu egiten dugu... Nerabezaroan jarrera hori uzkurtu egiten da. Seguru asko ez ditugulako aurkitu lotuta irauteko lanabes egokiak. FLLrekin "gap" hori txikitzen lagundun ahi dugu eta gure gazteei lagundu beren geroaren protagonista-gakoan jar daitezen, presenteko berritzailearen rola bere gain harraraziz.

**Nola balioesten duzu Euskadin egitea FLLren espainiar finala?**
Funtsezko da Euskadirentzat, berrikuntza, ezagutzarekin lotutako Euskadi bat bistaratzen dugu. Eta, jakina, estatu-torneoaren egoitza izateak kokatu egiten du Euskal Herria FLLren nazioarteko sarean. Berrikuntzak herrialde-marka bezala jokatzen du Euskadirentzat.

**Ekimen honi laguntzen jarraituko al duzue etorkizunean?**
FLL harrera ikusgarria izaten ari da, ildo horretatik funtsezkoa izan zen Euskaltelen babesa. Bi urtetan hazi egin dugu %56an ikastetxeen parte-hartzea, eta final espainiar bat eratu dugu. Beharrezko proiektu bat den seinalea. Askotan galdetzen diogu geure buruari datozen 20 urteetako aldaketen protagonistak. Eta agian pentsatzen dugu garaje batean egon daitezkeela, Googleren jaiotzaren garaian gertatzen zen bezala. Gaur, orain euskal berrikuntzaren protagonistak FLLen jolas egiten dute.



# "Gipuzkoa Berritzen-ek ekintzar bideratze du berrikuntza"

**Gaizka Zulaika** - Gipuzkoa Berritzen-en Zuzendari Nagusia - Diario Vasco, 2011ko otsailaren 22

Gipuzkoa berritzen sarean ari da lanean eragile publiko eta pribatuekin 2020an Gipuzkoa lurralde berritzaile bat izan dadin, oparotasuna eta geroa bermaturik edukiko dituena. Hori lortzeko lanean ari gara eta dagoeneko zenbait proiektutan lan egin da INEUSTAR , Zientziaren Industrien Elkartea sortzeari lagunduz., Langune sortzeari lagunduz, Euskal Herriko Hizkuntzaren Industrien Elkartea eta minigenerazio banatuari.

Gaizka Zulaika, Gipuzkoa Berritzen-en zuzendari nagusiak azaltzen du zertan dautzan ekimen hiriek eta zergatik den oinarrizkoa berrikuntzaren aldeko apustua

**Zer paper du berrikuntzak gizartean?**

Gipuzkoa Berritzen- Innobasqueren filosofiaren ikuspuntutik berrikuntza da lurralde bat eraldatzeko bidea eraginkorragoa, jasangarriagoa, globalizatua eta lehiakorra eta intrintsekoki berritzailea izan dadin. Gizartea inplikatu nahi dugu, berrikuntzaren bitartez, nahi dugun agertokira iristeko.

Gipuzkoa Berritzen batez ere ekintzara zuzenduriko antolaera bat da. Gipuzkoa ADN berritzailea duen lurralde bat da. Horregatik lan egiten dugu sarean, proiektu desberdinetan esku hartzen duten taldeak sortzen ditugu. Talde bakoitza diziplina-aniztuna da, osagai berritzaile handia du eta batuketa egin behar dio proiektu orokorrari, lehen aipaturiko terminoetan lurraldearen eraldaketan lankide izateko. Ekintza jakin batera bideratutako taldeak dira irismen desberdineko ekimenak praktikan jartzen direlarik, jardunaldi berriemaile bat, proba pilotu bat edo enpresa bat.

**Abian dituzuen proiektu horietatik guztietatik, zein nabarmenduko zenuke?**

20 lantalde baino gehiago daude maila desberdinetakoak. Adibide gisara aipatuko nuke Gipuzkoa Berritzen-ek Langune, Euskal Herriko Hizkuntzaren Industriaren Elkarteari, edo Ineustar Zientziaren Industriaren Espainiar Elkartea sortu duela. Bi gertaera kontrastatu dira. Bestalde, orain oso fase aurreratuan gaude minigenerazio banatuan. Energia-berrikuntzako ekimen anbiziotsu bat da Gipuzkoan elektrizitate berriztagarriko minigenerazioko sare bat sortu nahi duena

**Nola?**

Proiektuak hiru helburu ditu: energia berde gehiago sortu, sektore horren jarduera ekonomikoari lagundu Gipuzkoan ekipo eta teknologien fabrikatzaileei bultza eginez arrakastarekin nazioartekotu daitezen, eta energia banatuko sare bat sortu.

Etorkizunari aurrea hartu nahi diogu, zeren eta berrikuntza dela uste baitugu energiaren generazioak oinarritzat hartuko duen euskarrietako bat. Minigenerazio banatua eskala txikian elektrizitatea sortzea da, azken kontsumoko puntutik hurbil, generadore txiki elkarri konektatuen bidezko sare bat sortuz.

**Zer abantaila du horrek?**

Sare horrek eskaintzen dituen abantaila handiak dira energia galtzea saihesten dela garraiokoan, zeren eta "in situ" eskura dauden baliabideekin sortzen baita energia, haizearekin edo eguzkiarekin. Horrela mendekotasun energetikoa saihesten da eta zentral handien beharra. Gainera, gehikin posiblea saldu egin daiteke. Daudenak baino sare eraginkorragoa eta jasangarriagoa da. Laster jarriko dugu abian planta bat non ebaluatuko diren instalatu beharreko ekipoen ahalmenak eta haien sareko portaera.

**Langune ere aipatu duzu...**

Gipuzkoarako Berritzen-Innobasquen etorkizuneko sektore ekonomiko potentzialak identifikatzen ditugu, balioa sortze-, berrikuntza- eta hazkunderako merkatu berrien bilaketa-gakoan. Hizkuntzaren industriaren sektoreak lokarri sendoak ditu gure ingurunean. Hizkuntzalaritzan, gure idiosinkrasiarengatik, bada ezagutza bat semantikan, bilaketa motorretan, eta abar. Badugu "knowhowa".

Aldi berean bada mundu-merkatu bat gorantz datorrena egundoko ahalmena duena 10.500 milioi euro baino gehiago mugitzen dituena eta urtean %20ko hazkundea duena. Hala ere

Sektore horretara herrialde gutxi hurbiltzen dira Euskadik badu bertan sartzeko oinarria. Gure proposamena da enpresa keta eragileak taldean biltzea sektore hor ihemen egituratzeko eta kanpora begiratzeko, hizkuntza-aniztasunaren merkatu globalera. Euskadin gero eta indartsuagoa den sektore batean jarduera sortzen ahalegintzen gara. Testuinguru horretan sortzen da Langune, Euskal Herriko Hizkuntzaren Industrien Elkartea

**Egun hauetan hitz egiten da langileen soldatak enpresen produktibitateari lotzeaz. Zuek ideia berritzaile bat proposatzen duzue: langileek lan egin dezatela kudeaketan eta enpresen jabetzan lehiakorragoak izan daitezen eta egungo krisiari aurre egin diezaioten.**

Gipuzkoa Berritzen-ek interesgarritzat jotzen du auzi honi sakonera eta anbizio handiagoarekin ekitea. Lehen lekuan argitu nahiko nuke kooperatiboa ez dela parte-hartzezko eredu bakarra. Enpresa bakoitzak bere bidea bilatu behar du. Eredu parte-hartzaileek lehiakortasuna ematen dute eta berrikuntzarako gaitasun handiagoa enpresei, zeren eta enpresa bat zenbat eta partekatuagoa izan (parte-hartzea erabakietan, emaitzetan edo kapitalean) hainbat lehiakorragoa eta berritzaileagoa eta jasangarriagoa gertatzen baita. Guretzat apustu hau serioa eta anbiziotsua da.



# Negozio sarkariak piramidearen oinarrian?

**Paul Ortega** - Nazioarteko Programen Zuzendaria - Euskadi+innova, 2011ko urtarrilaren 24

"Pertsona batek lorpenak bereganatzeko duen gaitasuna aukera ekonomikoen, askatasun politikoen, erraztasun sozialen eta osasuna, oinarrizko hezkuntzaren baldintza prestatzaileen eraginpean dago, bai eta ekimenen hatsaren eta lantzearen baitan ere".
Amartya Sen.

Duela urte gutxi batzuk piramidearen oinarri bezala ezagutzen da beheko estratu ekonomikoan kokaturiko biztanleria behartsuak osatutako segmentu sozioekonomikoa. Teknikoki mundu-biztanleriaren errentaren estratu beherena da, 4.700 milioi pertsonak osatutako segmentua (mundu-biztanleriaren %70 baino gehiago), egunean hiru dolar baino gutxiagorekin bizi dena (erosahalmen-parekotasunean)

Segmentu hau, gizateriaren gehiena, ekonomia informalean aritzeagatik ezaugarritzen da, ase gabeko oinarrizko behar mordo bat edukitzeaz, bai eta merkatuko ekonomian aktiboki esku hartzea eragozten dieten murriztapenak ere. Eta, horregatik, ez dute sarbiderik beren garapen berekia bermatzeko ondasun eta zerbitzu bideragarrietara. Hala ere, hortxe, gutxien espero zitekeen tokian, piramidearen oinarrian (PO) dago merkatu estimulagarriena eta hazkunde handienekoa munduan. Kolektiboki, munduko pobreen milaka milioik, batez ere Asian, Afrikan eta Europaren Ekialdeko erregioetan eta Latinoamerikan eta Kariben enpresa- eta erosketa-gaitasun izugarriak dituzte.

Batzuek horretan egundoko oportunismoa ikusi nahi izan dute fortuna bila dabiltzan munduko enpresa aberatsenentzat, kontsumo edo ekoizpeneko merkatu handi bat bezala (deslokalizazioen helmuga), baina ez da erraza merkatu horietan sartzea ez eta arrakastarekin aritzea gizarte konplexu horietan.

Benetako abagunea kooperazioaren era berritzaile batetik sortzen da, negozio sarkarien bitartez piramidearen oinarrian: pobretasuna murriztea bilatzea merkatu-soluzioen bitartez eta sektore hori aktiboki integratuz. Horretarako, biktima edo karga bezala biztanleria horiek ikusteari uko egin beharra dugu, subjektu aktibo bezala kontsideratzen hasi behar dugu, ekintzaile sortzaile bezala eta berreskuratzeko gaitasunarekin, eta bere balio berekiaren kontzientzia duen kontsumitzaile eta bezero bezala.

Ildo horretatik, abagunea dago biztanleria pobrearen ahotsa integratzean negozio eta enpresa-eredu berrien sorkidetzan elkarrentzako balioa sortzeko xedearekin, diseinuan, taxueran eta enpresa- edo ekintzailetza-jardueran aliatu bezala txertatzean.

Eragile batzuk dagoeneko badira urte batzuk horretan lanean ari direla, eta jarduera onak ere baditugu, baina egia da gaur egun dinamismo berri bat azalerazten ari dela, sormena eta espiritu ekintzailea tokiko mailan, eta gero eta handiagoa, piramidearen oinarria deituriko talde zabaletan.

Agertoki apropoa aurkitzen da sektore arteko esku-hartzerako, lankidetza publiko-pribaturako eta elkarlanerako (partenergo berriak) enpresen artean, zeinahi delarik ere lokalizazio geografikoa edo jarduera-sektorea. Negozio, produktu eredu berrien berrikuntzarako eremua irekitzen da, alderantzizko berrikuntzarako eta aliantzen garapenean, elkargoen eta tokiko ekintzaileen protagonismo bereziarekin

Piramidearen oinarriak eskaintzen du zalantzarik gabe aukera estrategiko bat gure enpresa eta antolaerentzat beste era batera nazioartekotzeko, berritzaileagoa, eta ezaugarri bereziak dituzten merkatu berrietan sartzekoa (goranzkoak eta garapenekoak), beste era batera agian eskuraezinak zaizkigunak. Aukera-leiho interesgarri bat irekitzen zaigu Innobasquek Piramidearen Oinarriaren Nazioartekotze Programaren bitartez garatuko duena, Laugarren Sektorearen Dinamikaren esparruan. Horretarako, Berrikuntzako Euskal Agentziak kanpo-diagnostiko bat argitaratuko du euskal ekonomiaren berrikuntza-ahalmenaz eta presenteko eta geroko gaitasunez piramidearen oinarrian enpresa-proiektuei ekiteko: Piramidearen Oinarria Euskadiren ikuspegitik. Ezinbesteko gida bat goranzko ekonomietan sakontzeko kooperaziotik, eta hori hemen duzue:www.innobasque.com.

# Hiruhileko argitalpenak




**Piramidearen Oinarria Euskadiren ikuspegitik**

Egileak: Pablo Sánchez, Fernando Casado, Jordi Vives eta Juliana Mutis
Data: urtarrila 2011

Pompeu Fabra Unibertsitateko Piramidearen Oinarriko Laborategiko ekipo bat lankidetzan aritu da Innobasquerekin gaitasun-diagnostiko bat lantzen, jarduera-eredu berri honetan gure enpresak eta Piramidearen Oinarrian euskal antolaerentzat dauden abaguneei buruz orientatzea ahalbidetuko duena. Laburpen exekutiboa ingelesez ere eskura daiteke.

Argitaratzailea: Innobasque




**Gizarte Berrikuntza: Aukera-leiho bat Euskadirentzat**

Egilea Innobasque
Data: otsaila2011

Innobasquek bere lehentasunak aurkezten ditu (barrutiak eta gaiak), bai eta Euskadirentzako Sistema Integratu baten ikuspegia Gizarte Berrikuntzaren balio-katearen bitartez

Argitaratzailea: Innobasque




**Zahartzea Wokaren Ondorioak**

Egileak: Innobasque
Data: martxoa 2011

Zahartzeari buruzko WOKA egitea proiektu baten atala da adineko pertsonen bizi-kalitatean/zoriontasunean eragina duten osagai haiek ezagutzera zuzenduarena eta nola eragin litekeen gizarte bezala eta gure antolaeretatik faktore horietan. Jardunaldi hartan honako galdera honi erantzuna emateko ahalegina egin zen: Zer egin dezakegu adineko pertsonen bizi-kalitatea aldatu eta hobetzeko?

Argitaratzailea: Innobasque




**Berrikuntza eta benchmarkingaren adierazleak. Euskal Herrirako gogoeta proposamena**

Egileak: Mikel Navarro Arancegui (Zuzendaria), Juan José Gibaja Martíns, Susana Franco Rodríguez, Asier Murciego Alonso, Josune Sáenz Martínez
Data: martxoa 2011

Liburu hau harridura batetik sortu zen: jarduera ekonomikoaren terminoetan Euskal herriak zeukan kokagune erlatiboa berrikuntzako adierazle tradizionaletan aurkezten zuenarekin alderatzetik (funtsean, !+G, patenteak eta argitalpenak), ekonomiaren garapen-fase batean, zeinean, uste denez lehiakortasuna eta jarduera ekonomikoa berrikuntzaren mendean baitaude.

Argitaratzailea: Innobasque

# Jasotako argitalpenak



**Perspectivas empresariales Euskadi 2011**
Egilea: **Eusko Ganberak- Cámaras Vascas**
Otsaila 2011

Euroganberek sustatutako urteroko inkestan oinarritutako txostena, erregio-testuinguru batean europar egoera ekonomikoa ebaluatzen duena enpresen ikuspegitik. Eusko Ganberak-Cámaras de Comercio Vascas lankide izan dira txosten hau egiterakoan euskal enpresen iritziak txertatuz espainiar eta europarrekin batera.




**Innovation Union Scoreboard 2010**
Egilea: **Maastricht economic and Social Research and training centre of innovation and technology ( UNU-MERIT) with the contribution of DG JRC G33 of the European Commission**
Otsaila 2011

Innovation Union Scoreboard ( IUS)en Adierazleen Taularen lehen edizioa da hau europar berrikuntzako adierazleen azken laukien oinarriarekin, lanabes berriaren helburua Europa 2020ko intsigniaren aplikazioa berrikusten laguntzea da EB-27ko Estatu Kideek berrikuntza-emaitzen ebaluazio erkatzaile bat eskaintzean, bai eta ikerkuntza- eta berrikuntza-sistemen indarguneena eta ahulguneena ere.




**The other side of innovation: solving the execution challenge**
Egilea: **Vijay Govindarajan, Chris Trimble**

Negozioetako berrikuntza ezinbestekoa da bizirauteko. Ongi dakite hori egileek, izan ere liburu honen bitartez gakoak ematen baitituzte proiektu bat burutzeko, nahiz eta denik berritzaileena izan, beti behar baita diziplina gauzatzeko. Adibide berritzaileak oinarritzat hartuta BMW, Allstate, Timberland eta Nucor-etik; Vijay Govindarajan y Chris Trimble egileek proiektu berritzaile bat burutzeko gakoak azaltzen dituzte.



**Ageing, Health and pensions in Europe**
Edited by **Lans Bovenberg, Arthur Van Soest and Asghar Zaidi**

Liburu honek ikuspegi orokor bat ematen du etorkizuneko erronkei buruz, ekonomialarien ikerketez eta beste zientzialari sozialez biztanleriaren zahartzeaz, pentsioez, osasunaren zainketaz eta gizarte-arretaz Nazioartean ospea duten zenbait adituk eztabaidatzen dute ikerkuntza zientifikoak nola eman dezakeen abangoardiako lekukotasuna adineko pertsonen diru-sarreren segurtasunean, adinekoen ongizatean, lan merkatuez eta adinean aurreratutako langileez.




**Principios, pensamiento e innovación empresarial. La visión de Antonio Cancelo**
Egilea: **Antonio Cancelo**

Antonio Cancelo hogeita hamar urterekin sartu zen enpresa-munduan Juan XXIIIen izenarekin Eibarren sortutako kontsumo-kooperatiba baten zuzendaritza bere gain hartuz. Kooperatiba hori bi urte geroago sortuko den EROSKIren jatorrizko gunearen osagaietako bat izango da. Liburuan zehar argi eta garbi geratzen da haren pentsamenduaren eta hura agertzen den obren arteko koherentzia, bai eta ideia batzuen indarra ere eskura zeuden bitartekoetatik logika onean espero zitekeena sarritan gainditzen zituzten lorpenak eskuratuz.




**Creating Tomorrow´s Schools Today**
Egilea: **Richard Gerver**

Heziketa arrakasta edo porroterako plataforma da, baina gure sistemak egokia izaten al dirau helburu horretarako? Prest egongo ote dira gure seme-alabak geroak dakarzkien erronkei aurre egiteko: enplegu-patroien bilakaera lasterra edo jasangarritasun globalaren krisia? Edo erasan egingo te dira gure seme-alabak iristen ari diren erronken arabera beren ahalmena garatu ez duten eskola-urteengatik?




**GEM 2010**
Egileak: **Donna Kelly, Niels Bosma, José Ernesto Amorós**

Global Entrepreneurship Monitor (GEM)  irabazi-asmorik gabeko  ikerkuntza akademikoko partzuergo bat da. Kalitate handiko informazioa sortzea du xede enpresa-jarduera globalaz, ahali keta jendetza zabalenaren eskura egongo dena. GEM munduan enpresa-jardueraz egiten den azterlan handiena da. 1999an 10 herrialdetan hasitakoa, GEM 2010k mundu guztiko 59 ekonomiatan egindako ikerketak gidatu ditu.




**“Global Innovation Barometer” General Electric**

Berrikuntzaren erronken inguruko pertzepzioak aztertu eta berrikuntzaren xedea ikuspegi kultura aniztun batetik

http://files.gereports.com/wp-content/uploads/2011/01/GIB-results.pdf



**Measuring wider framework conditions for successful  innovation (NESTA)**

Txosten honek Manchesterreko Unibertsitateko akademikoen gainbegiratzea eskaintzendu berrikuntza arrakastatsurako esparru-baldintzen neurketarako nazioarteko datuen eraginkortasunaz.

http://www.nesta.org.uk/library/documents/Measuring_Framework_web_v2.pdf



**Cotec txostena: Tecnología e Innovación en España 2010-2011**

2008rako espainiar datuen azterketak  sistemaren sendotasun halako bat ageri du, krisiaren ondorioak indarrik handienarekin agertzen hasita zeudenean. Berrikuntza-adierazle nagusiak, haien hazkunde-tasa europar batez bestekoa baino handiagoa izan zen.

http://www.cotec.es/index.php/publicaciones/show/id/1949/titulo/informe-cotec--tecnologia-e-innovacion-en-espana--201




**Espainiar ekonomiaren lehiakortasuna: inflazioa, produktibitatea eta espezializazioa**

Nolako bilakaera du espainiar ekonomiaren lehiakortasunak? Arestiko adierazleek 1999tik atzeraldi garrantzitsu bat gertatu dela adierazten dute.

Hala ere, Europarekiko benetako konbergentziak aurrera doa ekoizpena, errenta eta enpleguaren datuen arabera.  Ez al ditu adierazten horrek lehiakortasun-irabaziak? Zeri zor zaio paradoxa hori?

http://www.pdf.lacaixa.comunicacions.com/ee/esp/ee32_esp.pdf

# Aurkezpenak

Eskura dauden aurkezpenak kontsulta itzazu Innobasqueren Slidesharen kanalean [slideshare.net/Innobasque]




**Gizarte Berrikuntza Mintegia** - Luis Mª Ulibarri, martxoa 2011

http://www.slideshare.net/innobasque/seminario-innovacion-social



**"Laugarren sektorea"** - Guillermo Ulacia, urtarrila 2011

http://www.slideshare.net/innobasque/guillermo-ulacia




**Gizarte Berrikuntza Estrategia: aukera-leiho bat Euskadirentzat**
Otsaila 2011

http://www.slideshare.net/REDekonomista/estrategia-de-innovacin-social-una-ventana-de-oportunidad-para-euskadi-7040580




**Negozio-lanabesak telefono mugikorretan mikrobanatzaileentzat** - Frogtek, Urtarrila 2011

http://www.slideshare.net/innobasque/frogtek



**Diagnostikoa berrikuntza-ahalmenaz Piramidearen Oinarrian** - Piramidearen Oinarriko Laborategia, Urtarrila 2011

http://www.slideshare.net/innobasque/fernando-casado




**Brian MacAulay (NESTA) "Axola den berrikuntza neurtuz"**, martxoa 2011

http://www.slideshare.net/innobasque/httpbitlygsheuubrian-macaulay



**"Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako politiken eraginaren eta emaitzen neurketa"** - Edorta Larrauri, martxoa 2011

http://www.slideshare.net/innobasque/edorta-larrauri-evaluando-el-impacto-de-la-innovacin



**"Berrikuntza-adierazleak eta benchmarking, Gogoeta eta proposamena Euskal Herrirako"** - Mikel Navarro, martxoa 2011

http://www.slideshare.net/innobasque/mikel-navarro-evaluando-el-impacto-de-la-innovacin

berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentzia, irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatua da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileek, enpresa pribatuek, euskal instituzio publikoek, euskal enpresaburuen eta langileen ordezkari instituzionalek, eta berrikuntzarekin zerikusia duten mota guztietako erakundeek eratua. Nola kapital publikoak (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia) hala pribatuak finantzatua da, bere 1.000 erakunde bazkide baino gehiagoren ekarpenen bitartez.

Innobasquek plataforma indartsu bat eta lankidetza-sare bat eskaintzen du eragile horientzat guztientzat, haren bitartez euskal gizartean berrikuntza sustatu eta hedatzeko, enpresetan, euskal erakundeetan eta gizarte osoan eraldaketa-dinamikak sortzen lagunduko duten ekitaldiekin, Euskadiren irudia hedatuz gizarte berritzaile, eta I+G+b-aren gune aurreratu gisa.

Innobasquek esku hartzen du honako administrazio-kontseilu eta organo zuzendarietan: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES); administrazio-kontseilua eta organo zuzendarietan The Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL), The Basque Center for Applied Mathematics (BCAM), Euskalit, Ikerbasque, Orkestra (Lehiakortasuneko Euskal Institutua) Fundación Loyola Media Berrikuntza, Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioa, LeiBerri, Gipuzkoa 2020, Lehendakari Batzorde Aholkularia, Langune, eta b20 (ILSI, Institute for Large Scale Innovation, San Francisco). Guillermo Ulacia da Innobasqueren lehendakaria 2009az geroztik.

www.innobasque.com